



## **Hondakinen Funtsaren bitartez Nafar Gobernuak ia 75.000€ko dirulaguntza onartu du Baztango Udalarentzat**

*Dirulaguntza hau 2021.urte honetan hondakinen kudeaketa hobetzeko egin diren ekintzak finantzatzeko erabili ahal izanen da.*

Nafarroako Mankomunitate ezberdinek eta Baztango Udalak zabortegira bideratzen dugun hondakin tona bakoitzeko ordaintzen dugun kanonaren bitartez hornitzen da "Hondakinen Funtsa" izeneko diru poltsa. Urtean zehar poltsa honetan bildutako dirua entitateei itzultzen zaie hondakinen kudeaketa hobetzeko aurrera ateratzen dituzten ekintzen, eta hauen eta kudeaketa sistemaren ondorioz lortutako hondakinen murrizpen eta hauen balorizazio edota birziklapen datuen arabera.

2021. urte honetan Baztango Udalak finantzarriak diren ekintzetarako eskatutako diru guztia jasotzeko onarpen ebazpena jaso du Nafar Gobernuako Ingurumen Departamentuko Ekonomia Zirkularra eta Klima aldaketa Zerbitzuari atxikituriko Hondakin Sailaren eskutik, hala nola 74.617,78€.

Jasotako dirulaguntza ondoko ekimenak finantzatzeko erabiliko da:

- **HONDAKINEN PREBENTZIOA:** Tokiko ostalaritzarekin elikagaien xahuketa murrizteko eta herritarrak jatetxeetan eskatutako janari soberakinak eramatera animatzeko sentsibilizazio kanpaina, gizarte zerbitzuetatik egiten den elikagai banaketan produktu freskoak eta zenbait establezimenduetako soberakinak banatzeko lokal baten egokitzea, herritarrei zuzenduriko sukaldaritzak tailerrak (baratzeko kontserbak, soberakinekin sukaldatu...), poltsa berrerabilgarrien banaketa...
- **GAI ORGANIKOAREN BIRZIKLAPENA:** Akonpainamendu zerbitzua, etxeetara banatzeko gai organikoaren birziklapenaren inguruko eskuorrien edizioa eta banaketa, Organi-kopa lehiaketa, kontenedore marroien erosketa, gai organikoa biltzeko kamioiaren erosketa...
- **GAINERAKO FRAKZIOEN BILKETA ETA BALORIZAZIOA:** Hondakinen egutegia, bilketa kamioietan GPS sistemaren inplantazioa, ontziak biltzeko kontenedoreen erosketa...



Ekimen guzti hauek hondakinen kudeaketa hobetu eta zentzu horretan ondoko urteetan zabortegira bideraturiko hondakin kopurua gutxitu, ordaindu beharreko kanona murriztu eta lortutako dirulaguntzak haunditzen joatea dira Udaleko Hondakin Zerbitzuak planteatzen dituen helburuak, horretarako herritar guztien partehartzea ezinbertzekoa delarik.

**2021eko azaroaren 4a**  
Informazio gehiagorako: [hondakinak@baztan.eus](mailto:hondakinak@baztan.eus) edo 667 808 539 (Miren)